

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako BPGa % 3,2 hazi da 2018an, Estatu osokoa baino zazpi hamarren gehiago

Foru Exekutiboak % 2,7ko aurreikuspena mantendu du 2019rako, nazioarteko egoerak gomendatzen duen zuhurtziazko testuinguruaren barnean

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 31

Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik [Nafarroako 2018ko Barne Produktuari buruzko datuak](#) eman ditu ezagutzera, eta horien arabera, nafar ekonomiak % 3,2ko hazkundera izan zuen iaz, udaren ondotik eguneratutako aurreikuspenak baino hamarren bat txikiagoa eta Estatu osoan erregistraturikoa baino zazpi hamarren handiagoa. Honela, BPGaren % 3,2ko hazkundera 2017ko hazkunde-tasa errepikatu eta "aurrerapen nabarmen" ekarri du ondoko ondoko bosgarren urtez.



Ayerdi, prentsaren aurreko agerraldian.

2018ko laugarren hiruhilekoaren buruan erregistratutako hazkundera % 0,4koa izan zen, aurreko hiruhilekoko baino bi hamarren txikiagoa, foru ekonomia hedatzeko joera moteltzen ari zen seinale, Estatuko zein nazioarteko ingurunearekin bat etorritik iragarrita zegoenaren harira.

Urtetik urterako ikuspegiaren arabera, 2017ko azken hiruhilekotik 2018ko azken hiruhilekora, Nafarroako ekonomiak % 3ko hazkundera izan zuen, aurreko hiruhilekoetan hurrenez hurren izandako % 3,3, % 3,4 eta % 3,3ko igoerak leunduz.

Erlaxatze horren seinalerik argiena enpleguak eman du, aurrerapenaren abiadura moteldu duelarik, baina hala eta guztiz ere % 2,9 afiliazio gehiago erregistratu du azken hiruhilekoan. Joera bertsukoak dira industria eta kontsumoaren arloko aldian aldiko adierazle batzuk; autoen ekoizpena eta matrikulazioa, kasu. Bestetik, beste adierazle batzuk jarduera orekatzen ari dira; adibidez, kanpo-merkataritzaren bilakaera, txikizkako merkataritzaren indizea edota zerbitzuen negozio-kopurua.

Zuhurtziazko aurreikuspena

Urtearrilean, FMIk eta beste erakunde batzuek munduko ekonomiaren ahultzea nabarmendu era merkataritzarako mugapenak eta brexita aipatu dituzte kausa nagusitzat. Horren kariaz, Ayerdi lehendakariordeak "zuhurtziaz" jokatu du 2019rako aurreikuspenei buruzko balorazioak

egiterakoan, eta ekonomia globaleko arriskuak gauzatu eta gure komunitatera iritsiko diren zain, % 2,7ko hazkundearen oinarritzko agertokia mantendu du aurtengo ekitaldirako. Ayerdi lehendakariordeak adierazi duenez, Nafarroako kopuruek "sendotasun eta erresistentzia nabarmena erakusten dute oro har, eta egungo datuekin, 2019rako egina dugun aurreikuspena bere horretan mantentzen ahal dela uste dugu".

Exekutiboaren aurreikuspena bat dator beste erakunde batzuek Nafarroarentzat landutako aurreikuspenekin: Funcas (% 2,8) BBVA (% 2,7) edo Laboral Kutxa (% 2,6).